

Ihesi

TESTUA: UNAI BREA
ARGAZKIAK: ENDIKA FERNANDEZ

Mundu berri bat

Endika Fernandezek, oraindik 30 urte bete ez dituen ermuarrak, Amerika osoa iparretik hegora egin zuen bizikleta gainean orain dela urte bi. Harekin batera bidaia bera egitera gonbidatzen zaituztegu hurrengo orrialdeetan. Fernandezek bizikleta aukeratu zuen, guk oraingoz irudimena baizik ez dugu erabiliko Amerikara alde egiteko. Oraingoz.

Gogoz zebilen Endika Fernandez txirrindula gainean abentura handiren bat bizitzeko, 20 urte zituela Kuba alderik alde zeharkatuz geroztik. Ia dena asmatuta dagoenez, eta abenturazaleentzako ibilbideak ere bai, Fernandezek aurrez prestatutako bideetako bat aukeratu besterik ez zuen egin behar. Amerikakoa iruditu zitzaion erakargarriena. Iparretik hegora, Alaskatik Patagoniara, kontinentearen mendealdetik joatea zen erronka, Panamerikar deritzon bideari jarraiki. 2005eko udaberria zen.

Alaskako (AEB) Anchorage hirian hasi zen 22.000 kilometroko bidaia. Alaska naturaren paradisia da. Gutxi gorabehera Gipuzkoak adina biztanle dauka, hedaduraz Frantziako edo Espainiako estatuen hiru halako den lurraldean. “Bertakoek diote han bandera dela gauza estatubatuar bakarra”, diosku Fernandezek. Etorkin mordoa dago AEBetako estaturik zabalenean, *king crab* izeneko karramarro erraldoiak harrapatzen diren sasoian batez ere. Oso ondo ordaintzen den lana da, baina asko hil egiten dira ahaleginean.

Juneau, hiriburua, herri handia da, eta ez dago errepiderik bertaraino. Izan ere, asfaltatutako errepide bakarra dago Alaskan.


Kanadan sartzeak ez zion aldaketa handirik ekarri gure bidaiariari. Paisaia ikusgarriak nonahi, basoak, mendiak... Vancouverrerira iritsi arte. Bere odisean, Endika Fernandez hiri handiak saihesten saiatu zen, baina askotan ez zuen igarotzea beste irtenbiderik eduki. Kanada eta AEBetako hiriak, hala ere, pagotxa dira txirrindulaz dabilzanentzat, bidegorriz beteta

Ozeano Bareko itsasertza, Puerto Vallartatik hurbil, Mexikon.






Alaskan gizakiak ukitu gabeko lurralde eremu zabalak daude. Ia inor ez da bizi AEBetako estaturik handiengan, eta biztanleetako asko etorkinak dira. Bertakoek dioetenez, "Alaska Txina da".




Panamako ekialdean dagoen Dariengo oihanak bereizten ditu Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika. Ez dago biderik berau zeharkatzeko, eta hala egotea komeni dela esaten dute batzuek –Iparraldekoek noski–, drogari eta etorkinei atea ez zabaltzeko.



Nazcako lerroak, Peru hegoaldean, misterio handia dira oraindik. Duela milaka urte egindako marrazki erraldoiak dira, haizeak ezabatu ezin dituenak, eta era guztietako irudiak agertzen dituztenak. Txakurra duzue agerian, baina astronauta bat ere badago, kasu baterako. Oso goitik begiratuta baino ezin daitezke atzeman.



54 kilometro Ushuaraino. Ingurune zoragarrian dagoen hiri itsusia da Ushuaia, turistak erakartzeko munduaren "amaiera" dela ondo saltzen jakin duena.



Bidaia osoan zehar, Endika Fernandezek eguneroko gertakizunak, sentipenak, emozioak... idatzi zituen. Azken egunekoak irakurtzen utzi digu, helmugara iritsita sekulako negar jarioa isuri zuela esaten duenekoak hain justu. Beste pasarte batzuk berak esan dizkigu aurrez aurre.

✓ “Askok ez zuten ulertzen zertan nentzen. Beraiek beste behar batzuk dituzte. ‘Zer abentura eta abenturaz?’ zioten. Harrigarri zitzaizkien musutruk egitea halakorik”.

✓ "Alaskan esan zidaten pistola eramateko aldean, hartzak zirela

eta. Oso merkeak dira gainera, pistolak. Baina ez da hainbesterako. Biologo batek esan zidan jende gehiago hiltzen dela Coca Cola lata makinan erostean elektrokutatuta, hartz batek eraso eginda baino"

✓ “Basamortuan ez nuen kanpin-dena ipintzen. Lo-zakuan sartu eta gora begira egoten nintzen, zeruari begira. Milaka izar, konstelazioak... hemen ikusten ez den guztia. Diotenez, Behe Kalifornia (Mexiko) da munduko lekurik onena izarrak ikusteko”.



Endika Fernandez Costa Ricako errepede batean.

dik 500 kilometrora, errepidea eten egiten da. Dariengo oihan erraldoiak Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika bereizten ditu; ez dago inolako biderik, eta egiteko asmorik ere ez. Droga trafikatzailerei eta etorkinei gauzak erraztea ez da komeni. Hala, Endika Fernandezek hegazkinez egin behar izan zuen Cartagenarainoko (Kolumbia) bide zatia, Panama hiriburutik.

Kolonbian, zenbat eta hegoalde-
rago okerrago. Giroa gero eta arrisku-
tsuagoa delako, eta Andeak gero eta
handiagoak direlako. Beldurrik pasa
zuen Fernandezek, baina onik iritsi
zen Ekuadorrera. Quito inguruan,
itsasertzera jaistea erabaki zuen, oxige-
no apur baten bila. Hala, kostaldetik
egin zuen gainerako bide guztia,
amaierako zatia izan ezik. Peru hegoal-
dean ikusi zuen bidaiaria osoko lekurik
harrigarrienetakoa: Nazcako lerroak,
munduko zientzialariak zorakuta dauz-
katen irudiak.

Txilera sartzea Europara itzultze bezalakoa da, ordura arteko txirotasuna bat-batean desagertzen baita. Iparraldean basamortua, erdian mahastiak, hegoaldean baso eta mendi ikusgarriak, denetik du Txilek. Bide australa deritzenonera helduta, zikloa ixten da: berriz Alaska ematen du honek.

Bide australa Pinocheten aginduz eraikitako 1.100 kilometroko mendiko pista da, fiordo artean dabilena. Hark garamatza Patagoniako oihanera, eta Suaren Lurraldetik itzultitxoa egin ostean, munduaren amaiera omen den Ushuaiara. Edo gure bidaiarenera behintzat. Endika Fernandezek urtebete eman zuen.

daudelako. Eta Vancouverren bertan,
campingak daude hiri erdi-erdian.

AEBetan sartuta, bandera festa, bertakoen abertzaletasun sutsuaren erakusle. Bide osoa kostaldetik egin zuen ermuarrak, 101 izeneko errepide zaharretik hain zuzen. Hainbat hiri zeharkatu behar izan zituen, baina San Diegon eta Tijuanan (Mexiko) ikusita-koak utzi zion oroitzapenik biziena. Munduko mugarik handiena da bi hirien artekoa. Hondartza bera ere alantzeko hesi batek erdibitzen du, eta asteburuetan han elkartzen dira zatitutako familiak, hesiaren alde banatan, otordua egitara.

Mexiko basamortuz hasten da, baina gero eta landaredi oparoagoa dago hegoaldera joan ahala, Txiapaseko oihanera heldu arte. Han, borrokan

segitzen du gehienok erdi ahaztuta daukagun zapatismoak. Pobreak dira eta gaizki daude, baina badago halako ordena bat. Guatemalan sartu bezain laster, aldiz, bidaia askoz arriskutsuago bihurtzen da. Tikaleko piramide maia ospetsuetatik hurbilen dagoen hiriak lakua du erdian, eta lekuaren erdian uhartea. Han gordetzen dituzte turistak, poliziak babestuta. Guatemalan, El Salvadorren eta Hondurasen, marak izeneko gazte-taldeak benetako arazo bilakatu dira. Urtean milaka hildako eragiten ditu haren indarkeriak.

Costa Ricak eta Panamak naturaren
eztanda dakarte. Oihan tropikalak
estaltzen ditu, eta biodibertsitateari
dagokionez ez omen dago munduan
parekorik. Panaman, zer esanik ez,
kanala da beste ikuskizun ederra. Han-

Andeetako mendikatea, Kolonbian.

